

Ardotxi joan zaigu

Kazetaria, militantea, koherentea



Polloen, martxoaren 30ean, egindako lehenengo omenaldia.

DONOSTIA. Teresa Toda

Ezustekoan, tximistak jotzen duen bezalaxe, joan zitzaigun aldizkari honen zuzendaria, Joxerra Goikoetxea, "Ardotxi", sindikatuan oso eza-guna –eta maitatua– zen kazetaria. Martxoaren 28an, Donostian, 56 urte zituenean, bihotza leher-tu zitzaion, eta egun hartan eman behar zuen pase-oa, baita bere bizitzaren ibilbidea ere, moztuta gera-tu zen, bere familia, lagun, eta lankideen saminera-ko.

Bai, samin bizia sortu du Ardotxiren heriotzak, eta hurrengo egunetan antolatutako omenaldietan nabarmendu egin zen, bai presentzietan, bai esan-dako guztietan. Hutsune handia nabarmentzen da Iraultzeneko bulegoan; eta irakurtzen ari zaren kro-nika ezin da kronika arrunta izan; gaindiezin senti-menduz beterik baitago.

Hamar urte zeraman Joxerrak Iraultzenen, hogei urte "Egin" en pasa eta gero. Kazeta abertzalera iritsi baino lehen, asko bizi izan zuen Ardotxik, Euskal Herriko borrokarekin hartutako konpromiso eta militantziarengatik. Andoainen jaiota, oso gazte ha-si zen borroka politikoan. Hasteko, pintadak, pan-

Kazetaritzan jorratutako bideek sindikalismora eramán zuten.

kartak, lagunekin eztabaidak eta proiektuak; pixka-naka, pixkanaka konpromisoa sakondu eta militantzia antolatutara pasa zen. Horren ondorioz, 1968ko abuztuaren 12an atxilotu egin zuten; kart-zelaratu izan zen urte bereko Gabonak arte. Espet-xetik irten eta Ipar Euskal Herrira joan zen, errefu-xiatua, 1971 hasieran arte. Askotan gogoratzen zi-tuen Ardotxik Ipar Euskal Herrian bizitako urteak, zer nolako harrera beroa eduki zuen bertako lagu-nengandik, nola bizi ziren garai hartako errefuxia-tuak, elkartasuna nola lantzen zen...

Erbestetik Eginera

Baina militantea zenez, Hego Euskal Herrira bueltatu zen, eta, 1971ko martxoan, berriro atxilo-tu zuten. 10 egun pasa zituen Guardia Zibilaren

eskuetan, horrek dakarren guztiarekin, tortura lehe-nengoz. Handik, Carabanchelera eramán zuten; epaitu eta 8 urteko sententzia ezarri zion Espainia-ko zoritxarreko "TOP" ak, -Tribunal de Orden Pú-blico-. Dispersioa ere ezagutu zuen Joxerra Goiko-etxeak garai hartan, Soria, Jaen eta Carabanchelen egon baitzen preso lau urteetan zehar. Franco dikta-dorearen heriotzaren ondoren emandako lehenen-go amnistia girtarteko, ezarritako zortzi urtetatik lau beteta atera zen.

Lagun eta lankideen artean, anekdota asko kon-tatzen zituen Ardotxik kartzelan emandako denbo-raz. Gose grebak, Sorian pasatutako hotzak, Jaengo beroaz... Edo preso politikoen artean zer nolako eztabaida biziak pizten ziren, teoria politikoen in-guruan edo egoera eta etorkizuna aztertzerakoan. Baita ere nola ospakizunak antolatzen ziren denen artean. Baina kartzelaren garaia irakurtzeko eta ikasteko bereziki aprobetxatu zuen Ardotxik, bere izaeraren ezaugarri bat lantzen.

Euskal Herrira bueltatu zenean, lanbidea kazeta-ritzan bilatu zuen, eta ikasketari ekin zion. Politiko-ki, ETA-VIan emandako konpromisoari jarraipena eman zion LKIn.

"Egin" en lehenengo aleetan argitaratu zituzten Ardotxiren lehenengo lanak, egunkaria haren Eko-nomia sekzioan. Betidanik bere bihotzetik hurbil eduki zuen langileen munduan, eta kazetaritzaren bitartez hurbildu zen lan munduaren problemati-kara; ekonomiaren bide konplikatuak argitzen saia-tu zen, irakurleei azalduz; patronalaren jarrera bor-titza behin eta berri salatzen zituen bere idazkie-tan. 80ko hamarkadako langile borroka gogortu egin zen, birmoldaketa industrialaren ondorioz, eta han egon zen Joxerra kazetaria, langileen hitzei bi-dea ematen, ke poteen artean, barrikaden atzean.

Garai hartan, Agurtzane Juanena bere laguna ezagutu zuen, elkarrekin bizitzen hasi ziren, eta bi alaba eduki zituzten, Garazi eta Maddi.

Sindikalgintzara

Apurka, eguneko lanean jorratutako bideek sin-dikalismora eramán zuten Ardotxi. Borroketan, sindikalista askorekin eduki zituen hartu-emanak, bai lantokietan aritzen zirenekin, bai sindikatu ez-berdinetako zuzendaritzako kideekin; horien arte-an, LABeko ugari. Eta, 90eko hamarkadan hasie-ran, Ardotxik LABekin zeuzkan harremanak estut-zen joan ziren. Afiliatu egin zen eta bere militantzia sindikala bateragarria egin zuen "Egin" en zeuzkan

Egunero tartetxo bat ematen zuen lankideekin solasaldian

ardurekin.

Era berean, ezker abertzaleko politikara hurbildu zen, ekustrutura politikoan parte hartuz. Izatez polemista, bere ekarpenek beti zuten Ardotxiren begiradaren ukitu kritikoa, debatee beste ikuspuntua gehituz, baina beti gehiengoak erabakitzen zuena errespetatuz. Azken aldian, Donostiako ezker abertzaleak sortutako “Baga Boga” n parte hartzen zuen, eta, aurretik, “Batasuna” prozesuko bultzatzailea izan zen.

Bizitzak betetako motxila aberats horrekin, 1995ean, LABek deituta, liberatu zen Ardotxi, “Iraultzen” aldizkariaren ardura hartzeko. Baina inoiz ez zituen ahaztu “Eginen” emandako urteak eta bereziki sufritu zuen kazetaren itxierarekin. Bost urte beranduago, “Egunkariaren” itxierak Eginekoak utzitako aztarnak berririki zituen, eta 2003ko otsailaren 20an lehenengo lerroan egon zen Ardotxi Guardia Zibilaria aurre egiten.

Iraultzen lantzen eta zaintzen

Bihotzez aritu zen Ardotxi Iraultzenen, eta lan horretan lagun asko egin zituen sindikatuan, maila guztietan. Beti hiztun, goizero, deskafeinatua eskuan, tartetxo bat ematen zuen solasaldian, bata zein bestearrekin, azken gertaera politikoak edota sindikalak komentatzen, bere ikuspuntuak argudiatzen. Gero, lanera. Erreportajeak lantzeko unean, ordu asko ematen zituen Ardotxi bere artxibo kuttunaren paperen artean edo, azken bizpahiru urteetan, interneten. Zorrotza, datu guztiak eman nahi zituen bere lanetan, nahiz eta gero luzetia geratu Iraultzeneko orrietarako...

Andoaingo hasieratik Donostian azken arnasa eman arte, koherente izan zen Joserra Goikoetxea, bere konpromiso guztietan: Euskal Herriarekin, euskararekin, langileekin eta hauen borrokekin, ezker abertzalarekin. Baita bere bizitza pertsonalean ere koherentziari eutsi zion beti.

Ez da erraza kronika pertsonal honi bukaera ematea. Mila zehaztapenetan gal daiteke, oroitzapenak oraindik berriegiak dira. Zer esan dezakegun? Pertsona bat galtzea oso gogorra egiten da beti hurbilen eduki dutenentzat, eta, zorritzarek, asko –gehiegi– daki LABek horrelako saminetaz azken aldian. Ez dago kontsolamendurik, bakarrik errealtatea onartzea eta joandakoak utzitako guztiak gure bizitzarekin bat egin, bizi garen heinean mundu honetan beraiek nolabaiteko bizitza eta partehartze edukiko dutenean. Agur eta ohore, Ardotxi.

Homenaje desde la amistad

ANDOAIN. Iraultzen

El sentimiento de la amistad más profunda, junto con el compromiso compartido, marcó el homenaje tributado a Ardotxi en Andoain el 1 de abril, al que asistieron cientos de personas. Fue el segundo, puesto que el día 30 se homenajeó su figura en el cementerio de Polloe. Antiguos compañeros de su anterior militancia política estuvieron en ambos actos; Ardotxi dejó huella y un buen recuerdo en la mucha gente que le conoció.

Con la emoción embargando a todas las personas presentes, el acto se inició con el aurreku bailado por Kresala, grupo de danza del que forma parte Garazi, la hija mayor de Joserra Goikoetxea. Seguidamente intervino Josean Barandiaran, ex alcalde de Andoain y amigo desde la juventud, en nombre de su cuadrilla de amigos y amigas. Teresa Toda, compañera en Egin y en Iraultzen, recordó su trayectoria periodística y sindical, recogiendo recuerdos de otras personas que también trabajaron con él.

Xabier Isasi, presidente de Gaindegia, organismo en el que participaba Ardotxi, le recordó en aquella



actividad. Finalmente, el secretario general Rafa Díez reconoció en sus palabras la estrecha amistad que le unía a Joserra, desde hacía 25 años, cuando Ardotxi estaba en “Egin” y Rafa Díez era delegado de LAB en Michelin. Sus recuerdos se mezclaron con la valoración de su coherencia militante, de su entrega a la causa de la clase obrera vasca y la liberación de Euskal Herria.

El canto de la Internacional y el Eusko Gudariak pusieron fin al homenaje.



Joseba Ortiz de Lejarazu •

Pertsona berri baten, gizarte justuago baten eta Euskal Herri libre baten alde borrokatzen aritu izan den militante aparta hil zitzaigun joan zen martxoaren 21ean. Bere konpromezu militantea esparru ezberdinetara zabaldu izan du bizitzan zehar baina bereziki sindikalgintzan, LABen, burututako lana azpimarratu beharko genuke. Urte luzeetan zehar aritu da buru belarri LABen eta LABetik lanean, berezko esparrua zuen Metalgintzatik abiatuz sindikatuko beste hainbat esparrutara bere lana zabalduz. Apirilaren 24an agur hunkigarria eskeini genion, jakinda sorretan gelditzen ginela berarekin emandako guztiagatik, erakutsitako guztiagatik.

Agur eta ohore, Joseba. Zuhaitzak eta izarrak nahasten diren tokian, gauzak eta ametsak elkartzen diren lekuan, hor egongo zara guretzat.